

HONDARRIBIKO UDAL EUSKALTEGITIK EGINDAKO GALDERAK: GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUN-TXOSTENA

Gasteiz, 1997-IV-21

Ondorengo hauek ziren egindako galderak:

1. Esaldi kontsekutiboak: hauetatik zein da zilegi eta zein ez:

ZENBAT ETA ... ORDUAN ETA
ZENBAT ETA ... HAINBAT ETA
ZENBAT ETA ... GERO ETA
ZENBAT ETA ... HAINBAT

Gramatika Batzordearen iritziz hirugarrena izan ezik gainontzekoak ontzat jotzekoak dira. Beraz, ondorengo hau da ontzat hartzen EZ duen bakarra:

*ZENBAT ETA ... -AGO, GERO ETA ... -AGO

2. Denborazkoetan:

Gutunean emandako perpausak berez ez dira gramatikalki okerrak.

(1) Etorri denez geroztik ez da bisitan etorri.

(2) Orain dela hiru urte etorri denez geroztik ez da bisitan etorri.

Dena den, esango genuke hor ematen diren perpausen ondoan, denbora erlazioa edo aldi-komunztadura gordez egindako perpausak erabiliagoak eta neutroagoak lirakeela, eta Udal Euskaltegikoez zuten zalantza argitzeko ez direla oso adibide egokiak. Hona hemen:

(3) Etorri **zenez** geroztik ez da bisitan etorri.

(4) Orain dela hiru urte etorri **zenez** geroztik ez da bisitan etorri.

Hori horrela izanik, haiek emandako perpausak baino egokiago litzatekeela goian emandako (3) eta (4) perpausaz gain denbora-erlazioa gordez egindako beste hau:

(5) Gaur goizean etorri denez geroztik ez da isildu.

Jesús Mari Makazaga,
Gramatika batzordeko idazkaria